



kristautasunari buruzko
berrogeita hamar egia
deseroso

PATXI
LÓPEZ DE TEJADA
FLORES

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

patxi lópez de tejada flores

kristautasunari buruzko berrogeita hamar egia deseroso

Egiak aske egingo zaituzte.

Joan 8: 31-32.

Nire seme-alabei eta gazteei,
mundu hobeago bat eraikitzearen ardura bere gain hartzen dutenei.

aurkibidea

hitzaurrea

1.- Jesusek ez zuen inoiz erlijio berri bat sortzeko asmorik agertu, eta bere burua judutar hustzat hartzen zuen.

2.- Jesus hil ondoren apostoluek judutar hutsak bezala jokatzeko jarraitu zuten, sinagogara joaten, bertako erritoetan parte hartzen, eta ez zuten inoiz meza bat egin.

3.- Ebanjelioak ez zituzten Jesusen bizitzaren lekukoak idatzi.

4.- Ebanjelioen narrazioak antzekotasun nabariak dauzka aurreko mitoekin eta istorioekin.

5.- Jesusek ez zuen sekula esan Jainkoaren semea zenik.

6.- Berpizkundearen istorioa eta dotrina beste mito batzuen birmoldaketa bat da.

7.- Jesusek zeruen erresumaren etorrera iragarri zuen bere belaunaldiaren garairako, eta ez zen bete.

8.- Jesusek ez zituen mesias judutarrari buruzko iragarpenak bete.

9.- Mezaren osagai nagusiak paganoak dira.

10.- Mitoen arabera jainko paganoek mirakuluak egiten zituzten ere bai.

11.- Gabonak ez dira festa kristauak.

12.- Festa kristau gehienak aurreko festa paganoen manipulazioak dira.

13.- Bataioak sakramentu bezala ez du zentzurik.

14.- Ezkontza ez zen hitzarmen erlijioso bat ezta sakramentu bat Trentoko kontzilioak hori erabaki zuen arte 1563an.

15.- Erromak kristauak jazarri zituen, baina kristauak tolerantzia erlijiosoari buruzko Milango Ediktua ez zuten errespetatu eta paganoak jazarri zituzten.

16.- Halere, kristauak ez zituzten aramearra edo hebraiera kultu-hizkuntza bezala hautatu ezta Belem, Nazaret edo Jerusalem hiri sakratuak hiriburu bezala hautatu ere, latina eta Erroma baizik.

17.- Jesus jainkoa zela Konstantino enperadoreak erabaki zuen kristaua ez zenean.

18.- Judutarren aintzinako jainkoa, Jahveh, Kanaango hiru jainko ezberdinen nahasketa da.

19.- Uholde handia ez da mito judutarra, sumertarra baizik.

20.- Jesusen ondoko lehen hamarkadetako jarraitzaileek ez zuten eratu erlijio berri bat, ez ziren antolatu fede desberdin bat bezala, eta azkenik ez ziren judutarrengandik banandu ere, judutarrek botatzen joan ziren beren erlijiotik baizik.

21.- Milioika lagun jaiotzen, bizi eta hiltzen dira munduan Jesusen berririk izan gabe, Jainkoaren ustezko begiradapean.

22.- Ebanjelioa denok salbatzeko Jainkoaren benetako mezua baldin bada ez da ulertzen zergatik ez dator testu fidagarriago batean denon eskura eta denentzat ulergarria.

23.- Jesusek ez zuen inoiz elizak edo tenpluak eraikitzeke agindurik edo gomendiorik eman, ezta sinagogak ere.

24.- Jesusek ez zuen inoiz esan apaizik, abaderik, gotzainik edo inolako kargurik izendatu behar zirenik, ezta bere izenean inolako erakunde erlijiosorik eratu behar zenik ere.

25.- Pauloren konbertsioa ezin daiteke egiazkoa izan, Pauloren garaian kristautasunik ez zegoelako.

26.- Kristautasunak erlijio baketsu eta errukior bezala aurkezten du bere burua, baina milioika pertsonen erailketa bortitza eragin du historian zehar erlijio gerretan.

27.- Pekatu orijinala ez da Biblian agertzen.

28.- Antzinako judutarrek ez zuten hil ondoko bizitza batean sinesten.

29.- Ama birjina ez zen birjina, ebanjelioek diotenez Jesusek anaiak eta arrebak zituelako.

30.- Kristautasunak kultura klasikoa hondatu egin zuen.

31.- Pedro ermitauaren gurutzada.

32.- Aro Modernoan Inkisizioak eta Europa eta Amerika protestanteko kristauek milaka pertsona erre zituzten herejeak edo ustezko sorginak izateagatik.

33.- Inkisizioak eta auzitegi erlijioso protestanteek zientzia eta letren garapena eta hedapena galarazi edo oztopatu zuten mende askoan.

34.- Kristautasunak kultura zientifikoaren hedapena eragotzi egin du historian zehar.

- 35.- Kristautasunak izpiritu kritikoaren aurka egin du uneoro historian zehar.
- 36.- Eliza katolikoan 1870. urtetik aita santuak dotrinari buruzko esanak hutsezinak direla aldarrikatzen duen araua indarrean dago.
- 37.- Eliza katolikoak arrazionalismoa, liberalismo politikoa zein erlijiosoa eta kontzientzia eta kultu askatasuna gaitzetsi zituen eta bekatuak zirela aldarrikatu zuen.
- 38.- Kristautasunak joera matxista agertu du historian zehar.
- 39.- Kristautasunak joera klasista agertu du historian zehar.
- 40.- Eliza Katolikoaren barne funtzionamendua ez da demokratikoa, autoritarioa baizik.
- 41.- Kristauak duela gutxi arte liburuak sistematikoki eta masiboki debekatu eta erre egin dituzte.
- 42.- Eliza katolikoak Biblia bera irakurtzea debekatzen eta eragozten zuen duela gutxi arte.
- 43.- Kristauak ez zuten esklabotza ezta heriotza zigorra ere gaitzetsi mende luzeetan zehar.
- 44.- Kristauak santuk bezala izendatukoak maiz ez dira pertsona eredugarriak izan.
- 45.- Eliza katolikoan, aita santuak ere ez dira ereduzko kristauak izan askotan.
- 46.- Infernuaren ideia ez da kristaua ezta judutarra ere, aurretikoa baizik.

47.- Deabruak Biblian ez du akerraren forma hartzen, Pan jainko grekeraren forma eman zioten.

48.- Erro erlijioso beratik etorri arren, kristauen intolerantziak judutarrak egotzi zituen Europatik.

49.- Kristauek ez zuten erregimen naziaren aurka egin.

50.- Eliza katolikoak elizgizonek egindako milaka sexu abusu kasu estali ditu.

gibel solas gisa

bibliografia

hitzaurrea

Kristautasuna munduko erlijiorik handiena da, 2.400 milioi pertsona biltzen duen fedea delarik, eta beraz berari buruzko azalpenek ez dute ez justifikazioaren ez aurkezpenen beharrik.

Orain, erlijioa mintzagai normala izan al daiteke? Besteak mintzeko edo ofenditzeko arriskua ez al da handiegia? Merezi du?

Galdera horri ez dakit erantzun zuzena edo egokia ematen asmatuko nuenik, baina zerbait badakit, egiaren beharra badaukagula hain zuzen ere. Egiak ez du jantzi ederren beharrik, ezta justifikaziorik ezta aurretiko baimenaren edo barkamenaren beharrik, eta gizakiak zerbait behar baldin badu bizitza horretan egia da, benetan behar duen bakarra baita.

Denek? Ez dakit, baina egiaren gosea duenak egiaren ogia merezi duela iruditzen zait.

Ideiak eztabaidagarriak dira, pertsonak sakratuak dira. Erlijioaz ari garenean badakit zenbaiten ustean bata eta bestearen arteko marra ez dagoela txukun trazatzerik, jainko pertsonal batengan sinesten dutelako eta jainko hori edo iraganeko edo oraingo pertsona hori ez dagoela ez ofenditzea berak eskainitako edo plazaratutako ideia ('egia' beraientzat) auzian jartzen den unetik. Baina finean ideia bat da.

Kultu eta sinesmen askatasuna badago herrialde zibilizatuetan, baina, alienatuta izateko eskubide bat ba al dago? Xaloki sinesteko, horrela esatearren? Ba al dago eskubide bat tradizioak eta ohiturak (inolako frogarik gabe jasotzen ditugunak gehienetan) besteen jakiteko interesetik babesteko edo defenditzeko, ondo frogatuta ez dauden aurkaratzeetatik? Ez dut uste.

Irakurleak ez ditu federako edo ez sinesteko arrazoi absoluturik aurkituko ondoko orrietan, arrazoi absoluturik baldin badago, denborak, historiak eta ekintzen eta gertakarien jarioak utzi dizkiguten egia biribilak baizik. Egia horiek ere absolutuak ez direla? Jakina, ez dira egia absolutuak, nire egiak dira, eta baten batek egia horietako edozein egokia edo zuzena ez dela frogatzen edo justifikatzen baldin badu zuzentzeko prest nagoela aurreratzen dut.

Testu honek kristautasunaren edukietan edo mezuetan arreta gehiegi jartzen duela beste erlijioak edo fenomeno erlijiosoa oro har hizpide hartu beharrean? Beno, hori da liburuaren gaia hain zuzen ere, izenburuan engainurik ez dago. Ziur aski Islamari buruzko, fede juduari buruzko, budismoari buruzko edota hinduismo edo edozein erlijiori buruzko ehun, berrehun edo mila egia deseroso zerrenda zitezkeela, baina beharrezkoa den liburu hori edo beharrezkoak diren liburu horiek idazteko ezagutza adina daukanari uzten diot.

Kristautasunaren alde gauza asko esan litezkeela? Noski. Esklabuen eta emakumeen zoria hobetzeko eta ikuskizun odoltsuekin amaitzeko asko egin zutela kristauek Inperio Erromatarrean eta beste gauza on asko aurrerantzean? Askotan bakegileak izan direla? Sinesmen berak bizitzaren ezbeharrei edo garai latzei aurre egiten lagundu diela askori? Noski, baina bata ez du bestea kentzen. Egia egia da, eta ondo edo gaizki, garaiz, goiz edo berandu, komeni zaigunean eta ez zaigunean komeni, egiaren beharra badaukagu.

Heziketa kristaua jaso ditugunok badakigu ez digutela gezurra esaten irakatsi.

1.- Jesusek ez zuen inoiz erlijio berri bat sortzeko asmorik agertu, eta bere burua judutar hustzat hartzen zuen.

Ez dago Biblia osoan deklarazio bakar bat Jesusek esandakoa erlijio berri bat eratzekeo asmoa agertzen duenik. Jesusek maiz aipatzen zituen judutarren izkribuen edukiak autoritate iturri gisara, sinagogetara joan ohi zen, eta ez da inon agertzen bere burua judutar peto-peto bat besterik hartzen zuenik.

Jesusek lege erlijioso judutarrari esplizituki atxiki zion, Mateo 5:17-18:

17 Ez uste izan Moisesen legea edo profeten esanak huts bihurtzera etorria naizenik; ez naiz huts bihurtzera etorri, beren betera eramatera baizik. 18 Zeren eta benetan diotsuet: Zeru-lurrek dirauten bitartean legearen hitz batek edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

2.- Jesus hil ondoren apostoluek judutar hutsak bezala jokatzeko jarraitu zuten, sinagogara joaten, bertako erritoetan parte hartzen, eta ez zuten inoiz meza bat egin.

Egia esan, apostoluek eta Jesusen hasierako jarraitzaileek egiazko judutar bakarrak zirela uste zuten, eta gainontzeko judutarrak judaismoa uzten ari zirela Jesus maisu eta mesias judutarra bezala ez aitortzeagatik. Apostolu guztiek sinagogara joaten, bertan elkartzen eta judutar fedearen erritoetan parte hartzen eman zuten bizitza eta judutar praktikatzailerik bezala bizi eta hil ziren, baita Paulo ere.

Apostoluen Eginetan (17:1-15) Paulok sinagogako zerbitzuetan parte hartzeko ohitura zuela espreski aipatzen da.

Paulok zera esan zuen, nahiago zuela Jainkoak bera madarikatzea eta Jesusen jarraitzailea ez izatea judutarra izateari uztea baino, judutarren onerako eta judutarrak salba zitezen (Erromatarrei 9: 3-5).

3.- Ebanjelioak ez zituzten Jesusen bizitzaren lekukoak idatzi.

Ebanjeliorik zaharrena Markosena da, eta Kristoren ondoko 70-71 urtean inguru idatzia izan zen, eta gainontzekoak, Mateorena (K.o. 80-90), Lukasena (K.o. 80-90) eta Juanena (K.o. 90-100) beranduago oraindik (eta askoz beranduagoko kopietan iritsi zaizkigu dokumentu horiek, II. mendekoak aurrenekoak), eta Jesus jaio zen urtea zenbait adituren ustean Kristoren aurreko (esamoldeak zentzugabea ematen duen arren) 5a edo 6a izan zen agian. Beraz, ez dirudi Jesus pertsonalki ezagutu zuen inork ebanjelioak idatzi zituenik.

Egia esan, Itun berria osatzen duten liburuak Biblian azaltzen diren ordena ez da zuzena kronologikoki. Aurrena Paulok bere testuak (gutunak) idatzi zituen Jesusen bizitzari buruzko bere interpretazioa ematen eta lehenengo dotrina teologikoaren ildoak ezartzen, eta 20 edo 25 urte geroago ebanjelioak idazten hasi ziren. Paulok ez zuen Jesus pertsonalki ezagutu, baina berari buruzko lehenengo interpretazio erlijiosoa planteatu zuen (Jesus mesias zela alegia, eta Moisesen legea gainditu egin zuela eta lege berri bat indarrean jarri zeinaren arabera judutarrak ez zirenak -bakar batzuk, bere pentsamenduan- salba baitzitezkeen).

Dena dela, argi utzi behar da Paulo berak bere burua ere judutar hustzat hartzen zuela, eta ez zuela sekula judaismotik erlijio berri bat sortzeko asmorik azaldu berak ere. Pauloren ustean, berak egiten eta idazten zuen guztia taxuzko judaismoaren barruan geratzen zen. Are gehiago, beraz dakigunetik, Paulok ez ziokeen inori bera judutarra ez zela esaten onartuko, erabat judutarra izateaz harrotzen zelako beti.

Ebanjelioen egileak nortzuk izan ziren ez dakigu, tradizioen konbentzioek idatziak izan ziren baino hirurogeita hamar inguru urte geroago esleitu zizkieten izenak (Markos, Mateo, Lukas eta Joan) fikziozkoak direlako. Litekeena da egileak bigarren edo hirugarren Jesusen jarraitzaile belaunaldikoak izatea.

4.- Ebanjelioen narrazioak antzekotasun nabariak dauzka aurreko mitoekin eta istorioekin.

Jesusen bizitza ebanjelioetan idazten hasi ziren baino lehen:

Ziotenez Horus jainko egiptiarra abenduan jaioa zen birjina batengandik, ekialdeko izar bat zeruan azaltzen zen bitartean; mitoaren arabera hiru errege etorri ziren bera gurtzera, hamabi urte zituenean maisu batentzat hartzen zuten ingurukoek, hogeitahamar urterekin batailatu egin zuten eta ekintza publikoei ekin omen zien une horretatik aurrera. Horusek bere bidaietan bera laguntzen zihoazen zituen diszipuluak, gaixoak sendatzen zituen eta uraren azalaren gainetik ibili zen. “Artzain ona”, “Jaunaren arkumea” eta antzeko ezizenak jarri zizkioten. Tifon izeneko tipo baten traizioaren ondorioz Horus gurutziltzatu zuten, hiru egunez lurperatuta egon zen eta gero berpiztu zen.

Attis Frigiako jainkoa birjina batengandik jaio omen zen abenduaren 25an, gurutziltzatuta hil zen, eta hiru egunez lurperatuta egon ondoren berpiztu egin zen.

Dionisio jainkoa abenduaren 25an jaio zen birjina batengandik, Semele izeneko andre arrunt batengandik hain zuzen ere Zeusen hazi batetik (horregatik ‘bi amarena’ deitu ohi zuten), eta jainkoa zen arren gizaki hilkorren artean eman zuen bizitza osoa. Herak bidalitako titan batzuek erail zuten eta zerura igo zen Jainkoarekin (Zeus) mundua gobernatzera. ‘Erregeen erregea’ deitua izen zen eta mirakuluak egin zituen, besteak beste, ura ardo bihurtu ezkontza batean.

Alejandro Magnoren amak hazia jainkoengandik jaso zuen tximista batez elezaharraren arabera. Alejandro jaio zenean fenomeno astronomiko ezohikoak gertatu ziren, ume zela tenplu batean sartu zen, bertan zeuden sazerdoteekin hizketan hasi eta bere jakinduriarengatik txundituta utzi zituen, eta hogeita hamahiru urteekin hil zen.

Mitra jainkoa birjina batengandik jaio zen abenduaren 25ean bere mitoaren arabera, hamabi diszipulu izan zituen eta mirakuluak egin zituen. Hil zenean hiru egunez lurperatuta egon ondoren berpiztu egin zen.

5.- Jesusek ez zuen sekula esan Jainkoaren semea zenik.

Dakigunez Jesusek ez zuen idazkirik utzi, eta idazten eta irakurtzen zekien ere ez dakigu (garai hartako maisu eta rabbi judutarrak mintzatu egiten ziren, besterik ez, ezer idatzi gabe, Sokrates bezala) eta beraz dakiguna besteen testigantzetatik dator. Horien arabera Jesusek ez zuen sekula esan Jainkoaren semea zenik ezta Jainkoaren gorpuztea zenik ere. Bere burua aipatzeko gizonaren semea zela esan ohi omen zuen, eta ebanjelioek bere ahoan jartzen dituzten esakuntzez Jesusek Isaiasek iragarritako judutarren mesiasa zela uste zuen, bere bizitzaren azkeneko urteetan batez ere.

Bestela Israelgo profetak edo erregeak Jainkoaren semeak edo seme kuttunak edo bereziak zireneko ustea ohikoa zen Jesusen garaietan, eta beharbada horregatik bere jarraitzaileek bera hil eta gero titulu edo izaera hori egokitu zioten. Haatik uste hori ere ez zen ideia judutar jatorra, pertsona zehatz bat jainko baten semea izan zatekeena hain zuzen ere, judutarrek egiptiarrei kopiatu zietelako Egipton egon zirenean edo Egiptorekin edo kultura egiptiarreko jendeekin izandako tratuaz, Egiptoko erlijioan sinesmena zegoelako faraoia jainko baten semea zela.

Halaber beste zenbait ideia badaude kristautasunak Egiptoko erlijiotik (edo judutarren sinesmen sistema anitzetik, eragin egiptiar franko jasotzen eta pilatzen zituena, jatorri ezberdineko bere eragin askoren artean, hobekiago esanda) hartu zituenak, jainkoa pertsona zehatz batean gorpuz zitekeela adibidez, egiptiarrek sinesten baitzuten ere zenbaitetan jainko egiptiar bat faraoiaren pertsonan gorpuztu egiten zela.

6.- Berpizkundearen istorioa eta dotrina beste mito batzuen birmoldaketa bat da.

Egiptiarrekin zeukaten etengabeko kontaktutik ere judutarrek beste eragin bat jaso zuten, erlijio egiptiarraren mito zentrala: Osirisen mitoa. Horren arabera Seth anaiak Osiris (ausaz egiazko pertsona bat izandakoa, antzinako faraoi bat) erail zuen Nilo ibaian itotzen, boterea eskuratzeko, baina Osiris dagoeneko hilik zegoela bere alarguna Isisek gorpuaren zatiak ibaitik bildu zituen eta Neftisen laguntzarekin (Neftis Isisren ahizpa bikia zen eta Osirisen emaztea ere bazen) Osiris berpizten lortu zuen, eta ondoren Isis harremanak izan zituen berpiztutako Osirisekin eta kontakizun horren arabera hortik jaio baitzen Horus jainkoa, horrela erlijio egiptiarraren trinitatea (Osiris-Isis-Horus) osatu zelarik.

Zenbait adituren ustean Osirisen berpizkundea Nilo ibai sakratuaren urteroko zikloa islatzen du, edo naturarena oro har.

Jesusen jarraitzaileek heroi mitikoaren berpizkundeko behinolako istorio hura birmoldatu egin zuten beste zenbait eraginekin (Adonisen mitoarena adibidez, jainko pagano bat hil eta berpiztu egin zena ere bai, eta orduko Palestinan garrantzi handia zeukana -jainko horren jatorria Kanaango Adon jainkoa zelako-, aipatutako besteen artean, Horus, Attis, Dioniso, Mitra eta abar) Jesus gurutziltzaketaren ondoan benetan hilik ez zegoela eta haren berpizkundea kontatzeko.

Egia da Jesusen garaiko judutar batzuek (gaur egungoek ere) berpizkundean sinisten zutela, baina judutar denena eta judizio finalaren unean; heroiaren hil eta denbora gutxirako berpizkunde bakana Osirisen eta beste mito batzuen birmoldaketa bat da,

Jesus bere eragin itzelarengatik historiako pertsonarik garrantzitsuenetakoa da, garrantzitsuena ez bada, baina Kristo edo Jesukristo teologikoak fededunek sortutako fikziozko pertsonaiak dira.

7.- Jesusek zeruen erresumaren etorrera iragarri zuen bere belaunaldiaren garairako, eta ez zen bete.

Ebanjelioek diotenez Jesusek argi eta garbi iragarri zuen Jainkoaren erresumaren etorrera bere belaunaldikoak hil baino lehen gertatuko zela eta beraiek ikusiko zutela, Mateo 24:

1 Jesus tenplutik atera eta bazihoan. Orduan, ikasleek hurbildu eta tenpluko eraikinak erakutsi zizkioten. 2 Baina Jesusek esan zien: <<Ikusten duzue hori guztia, ez da? Ba, benetan diotsuet: Ez da hemen harririk harri gainean geldituko: dena suntsituko dute>>. 3 Gero, Oliamendin eserita zegoela, ikasleek bakarrean hurbildu eta galdetu zioten: <<Esaguzu noiz gertatuko den hori, eta zein izango den zure etorreraren eta munduaren azkenaren ezaugarria>>. 4 Jesusek erantzun zien: <<Kontuz! Ez zaitzatela inork engaina! 5 Asko etorriko dira, nire izena berenganatuz eta esanez: <Ni naiz Mesias>; eta jendea franko engainatuko dute. 6 Gerra-hots eta zurrumurrak entzungo dituzue. Begira, ez izutu, gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina oraindik ez da azkena. 7 Izan ere, nazioa nazioaren kontra eta erreinua erreinuaren kontra altxatuko dira; goseteak eta lurrikarak izango dira han eta hemen. 8 Baina hori guztia erdiminen hasiera da. 9 <<Zori larrian jarriko zaitzute eta hil egingo; herri guztiek gorroto izango dizute niregatik. 10 Orduan, askok fedeari uko egingo diote, eta elkar saldu eta gorrotatuko dute. 11 Anitz sasiprofeta altxatuko dira eta asko engainatuko dituzte. 12 Eta gaiztakeria ugaltzean, gehienen maitasuna hoztu egingo da; 13 baina azkenegaraino sendo irauten duena, horixe izango da salbatua. 14 Mundu guztian hots egingo da Jainkoaren erregetzaren berrion hau, herri guztiek haren berri izan dezaten. Orduan etorriko da azkena. 15 <<Daniel profetak aipatzen duen profanatzaille higuigarria toki santuan ezarria ikusiko duzuenean --irakurleak uler beza--, 16 orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; 17 etxe gainean dagoena ez bedi jaits etxeko gauzak hartzera, 18 eta soroan dena ez bedi itzul soingaineko bila. 19 Dohakabeak egun haietan haurdun daudenak eta bularreko haurrak dituztenak! 20 Eskatu Jainkoari, ihes egin beharra neguan edo larunbatez gerta ez dakizuen. 21 Zeren munduaren hasieratik orain arte

izan ez den eta izango ez den bezalako larrialdi handia izango baita orduan. 22 Eta Jainkoak aldi hori laburtuko ez balu, ez litzateke inortxo ere bizirik aterako; baina, aukeratuak direla eta, laburtu egingo ditu egun horiek. 23 <<Orduan, norbaitek <Hona hemen Mesias> edo <Hara han> esango balizue, ez sinetsi. 24 Izan ere, gezurrezko mesiasak eta sasiprofetak agertuko dira eta aukeratuak berak ere, ahal balitz, engainatzeko moduko mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte. 25 Horra, jakinaren gainean jarri zaituztet aldezturik. 26 Beraz, norbaitek <Hara, basamortuan dago> esaten badizue, zuek ez irten, edo <Hara, etxe barruan dago> esaten badizue, ez sinetsi. 27 Izan ere, tximistak une batean sortaldetik sartalderaino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semearen etorrera. 28 Sarraskia non, han biltzen dira putreak. 29 <<Egun haietako larrialdiaren ondoren, berehala, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik egingo, izarrak zero goitik amilduko dira, eta ortzia dardarka ariko. 30 Orduan, Gizonaren Semearen seinalea azalduko da zeruan, eta lurreko leinu guztiak bular-joka ariko dira, Gizonaren Semea zeruko hodei artean ahalmen eta aintzaz beterik etortzen ikustean. 31 Orduan, bere aingeruak bidaliko ditu turuta-hots ozenez, eta haren aukeratuak bilduko dituzte lau haizeetatik, lur-muga batetik besteraino.” 32 “Ikasi pikundoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hosta zabaltzen zaineko, badakizue uda hurbil dela. 33 Era berean, gauza horiek ikustean, jakizue hurbil dela, Gizonaren Semea ate ondoan duzuela. 34 Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok.

Asmatu izan balu ez zinateke hau irakurtzen egongo.

8.- Jesusek ez zituen mesias judutarrari buruzko iragarpenak bete.

Jesusek Isaiasek iragarritako mesias judutarra zela pentsatzen zuen eta zioen, baina Isaiasek iragarritako agintzak ez zituen bete. Isaias 9:6-7:

6 Gero eta zabalagoa izango da haren agintaritza, azkengabea bakea. Daviden tronuan izango da errege, eta justizia eta zuzenbidea izango dira haren erregetzaren oinarri eta sostengu, oraindik eta betiko. Jaun ahalguztidunaren maitemin sutsuak egingo du hori. 7 Zigor-mezua zuzendu die Jaunak Jakobena ondorengoei, Israelgo erresumari datorkio gainera.

Beraz, Isaiasen iragarpenaren arabera mesiasak hiru gauza ekarriko zituen: judutarren askapena, Daviden erresuma errestituzioa, eta bake unibertsala ezartzea.

Ebanjelioek diotenez Jesus erail zuten hiru gauza horietako bakar bat ere bete gabe. Hil zenean judutarrak zapalduta zeuden eta zapalduta jarraitu zuten luzaro (eta geroztik oso historia tragikoa izan dute, bide batez esanda), Daviden erresuma ez zen errestituzioa, eta bere heriotzaren unetik gatazken eta gerren erritmoa nonbait moteltzen doala esatea dagoen arren, historiak aurrera egin ahala eta oro har, bake unibertsalik ez dugu izan Jesusen garaietatik gaur arte.

9.- Mezaren osagai nagusiak paganoak dira.

Persiar jatorriko Mitra jainkoaren kultua une gorenean zegoen Inperio Erromatarrean (armada erromatarraren baitan batik bat) kristautasuna hazten eta hedatzen hasi zenean. Mitraikoek, judutarrek ez bezala (beraienez larunbata zen egun saintua), igandea ospatzen zuten egun saintu bezala, eguzkiaren eguna zelako hain zuzen ere, eta zenbaitek egunero egiten bazuten ere gehienak igandeetan tenplu batean elkarrekin biltzen ziren Mitraren omenez kultua egiteko, kultu hori nagusiki ogia jatean eta ardoa kopa batean edatean zetzalarik formulak eta otoitzak ahoskatuz. Ardoa Mitrak mitologikoki hiltzen zuen zezen sakratuaren odola bihurtzen zen mitraikoen ustean (edo odola ardo, hobekiago esanda), eta zera esaten zuten ardoa edatean *Et nos servasti aeternali sanguine fuso* ("Eta salbatu gaituzu odol eternala isurtzen"). Erritua egitean Mitraren irudia desestaltzen zuten ezki txikiak jotzen zituzten bitartean, eta iruditeriari dagokionez, Mitra artzainen artean edo ura txoko batetik mirakulusoki isurarazten irudikatzen zuten askotan.

Mitraikoen urteko festarik garrantzitsuenak abenduaren 25a zen, neguko solstizioa, Mitraren jaioteguna eta *Natalis solis invictis*, eguzki garailearen jaioteguna, eta erlijio horren arabera Mitra haitz batetik jaio zenean artzainak bera gurtzera bildu ziren.

Kultu misteriotsu dionisiakoan ere, fededunak biltzen ziren ogia jatera eta batez ere ardoa edatera horren bidez jainkoarekin bat egiteko. Talde sozial guztiak biltzen ziren errito horietan inolako aurreiritzirik edo desberdintasunik gabe, pobreenak barne, eta iniziatu guztiek hil ondoko bizitza batean espero zuten. Dioniso ere abenduaren 25an jaioa omen zen mitoaren arabera.

Kristauak errito eta ohitura guzti horiek kopiatu zizkieten mitraikoei eta dionisiakoei meza kristaua eta gabonak eratzeko. Garaiko kultuak izaki baliteke ere ausaz elementu horietako batzuk mitraikoek kristauei kopiatu izana, baina igandean jainkoaren omenez bankete bat egiteko ohiturari dagokionean, ogia eta ardoa erritualki jaten eta edaten, ez dirudi kasua izan zenik (ezta Gabonetako osagai nagusienena ere) usadio horiek arrotzak izan behar zitzairen ezinbestez Jesusen lehen jarraitzaileei eta aurreneko kristauei ere, judutarrak bezala sabbathen (larunbatean) testuak irakurtzeko eta otoitz egiteko soilik elkartzen ohituta zeudelako.

10.- Mitoen arabera jainko paganoek mirakuluak egiten zituzten ere bai.

Jainko eta heroi mitologikoei mirakuluak eta naturaz gaindiko ekintzak eransten zizkien istorioen tradizio baten jarraipena dira ebanjelioak eta geroko kristau kontakizun ugari.

Lourdes eta Fatima baino lehen jainkosak haur artzainei Egipton agertzen zitzaizkien Erdiko Inperioaren garaian, Kristoren aurreko 2000-1800 urteetan.

Tenplu paganoetan hamaika lekukok jainkoen estatuak begiak irekitzen, mintzatzen, negarrez, izerditan edo odoletan ikusi izana baieztatzen eta zin egiten zuten aldizka.

Jesus baino lehen Horus eta bere hamabi diszipuluak uraren azalaren gainetik ibili omen ziren, haiei buruzko mitoen arabera.

Jesusen aurreko jainko paganoek gaixoak maiz sendatzen zituzten eta beste mirakulu asko egin ohi zituzten, beraien inguruan zabaltzen ziren kontakizunen arabera.

11.- Gabonak ez dira festa kristauak.

Ebanjelioetan esaten denez Jesus ez zen neguan jaio, baina halabeharrez Horus, Mitra eta *Solis invictisen* jaiotza ospatzen zen aldezturik neguko solstizioan (abenduarien 24-25an). Halaber, data berberetan Erroman ospatzen zen Saturnaliako festan egungo gabonetako osagai gehienak erabiltzen ziren dagoeneko (argiak kaleetan, adartxo berdeak apaingarri bezala, familiarteko bazkariak, opariak, umeen eta gazteen protagonismoa), eta beste osagai gehienak (eguberritako arbola) paganoak dira.

Neguko solstizioa abenduaren 24-25an Aurrehistoriatik ospatzen zen kultura askotan (udako solstizioa bezala, ekainaren 24an, Donibaneko suen jatorria) urteko egunik laburrena zelako eta gaurik luzeena, eta geroztik *Solis invictis*-en jaiotegun bezala eta Mitra jainkoaren jaiotegun bezala ospatua izan zen. Kristautasunak aurreko ospakizun horiek manipulatu besterik ez zituen egin, Jesusen jaioteguna arbitrarioki ospatzera pasatuz. Aldiz, Ebanjelioetan ez dago identifikatzerik zein izan zen Jesus jaio zen eguna, baina testu horietan esaten denez (aska batean sortu zela, hain zuzen ere) ez da litekeena neguan jaio zenik.

Kristau puritanoek bazekiten Gabonak ospakizun pagano bat zirela eta debekatu egin zituzten Eskozian (1580ko hamarkadan), Ingalaterran (1652) eta Estatu Batuetan 1836a arte. 1856an oraindik Estatu Batuetan langileak lanetik botatzen zituzten abenduaren 25an lanera ez agertzeagatik gabonak ospatzeko, eta 1930ko hamarkadan puritanoek euren elizak ixten zituzten oraindik Estatu Batuetan egun horretan inolako zeremonia erlijiosorik ez izateko.

12.- Festa kristau gehienak aurreko festa paganoen manipulazioak dira.

Adibidez:

Urtarrilak 6 – Eguzkiaren sorrera Heladean – Jesusen jaiotza ortodoxoentzat / Erregeen eguna katolikoentzat.

Apirilak 14 - Lupercalia (ugalketaren festa erromatarra) – San Valentín.

Ekainak 23-24 - Udako solstizioa – Done Joan.

Abuztuak 15 – Hecate, Artemisa eta Dianaren eguna – Birjinaren eguna.

Azaroak 1 - Hildakoen eguna, Samain/Halloween zeltentzat, Feralia erromatarrentzat – Saintu guztiak.

Abenduak 24-25 – Saturnalia – Gabonak.

13.- Bataioak sakramentu bezala ez du zentzurik.

Bataioak sakramentu eta errito bezala (kristauek asmatu ez zutena, aurreko zenbait erlijioz gain judutarren adar batzuek aldeztu aurretik praktikatzen zutelako, eseniarrek eta farisearrak kasu) purifikazio morala adierazi nahi du, pekatuen eta gaizkiaren garbikuntza arimatik ur sakratuaz. Termino horietan Joanes Bataiatzaileak Jesus bataiatu izanak ez luke zentzurik kristaudentzat, Jesus Kristoa baldin bazen eta Jainkoaren pertsonifikazio bat edo semea, edota makulurik eta bekaturik gabeko gizasemea.

Jaioberriak bataiatzeak ere, Eliza katolikoan eta beste elizetan egiten den moduan, ez du zentzurik bekatuak egiteko astirik ez dutelako izan, eta Elizako komunitatean sarrera baldin bada bataioko erritoan erakutsi nahi dena edo ospatzen dena ere ez du zentzu handirik, jaioberri batek ezin duelako adostasun aske eta informatu bat eman, ezin duelako ezer ulertu ezta hitz egin ere.

14.- Ezkontza ez zen hitzarmen erlijioso bat ezta sakramentu bat Trentoko kontzilioak hori erabaki zuen arte 1563an.

Trentoko kontzilioan, 1563ko azaroaren 11ko sesioan Eliza katolikoak ezkontza sakramentu bat zela aldarrikatu zuen arte, apaiz baten aurrean egin beharrekoa, betirakoa eta disolbaezina, ezkontza ez zen sakramentu bat bezala kontsideratzen. Aldez aurretik ezkontideak kristauak izan arren eta Elizak elkarrekiko portaera ebanjeliko bat haiengandik espero zezakeen arren, ez zuten egintza eta kontratu bera zerbait erlijiosotzat hartzen.

Beraz, kristautasunaren lehenengo milurtekoan ezkontza ez zen sakramentu bat izan; izan ere arazoak ez sortzeko Trentoren garaian Elizak aurretik ezkontideen artean apaizik gabe izandako ezkontzak zilegiak zirela onartu zuen.

Lutero esate baterako ez zen sakramentuaren tesi horren aldekoa eta ezkontza erakunde zibil bat zela zioen, Elizak gehienez bedeinka zezakeena, eta dibortzioa onartzen zuen.

Aitzitik Jesus berak dibortzioaren kontrakoa zen, hori bere predikua berezitasun bat delarik, judutarren artean orokorrean dibortzioa onartuta zegoelako bere garaian eta baldintza egokiak egon ezker onartuta dago gaur egun ere.

15.- Erromak kristauak jazarri zituen, baina kristauak tolerantzia erlijiosoari buruzko Milango Ediktua ez zuten errespetatu eta paganoak jazarri zituzten.

Salbuespenak badaude baina Erromak orokorrean ez zuen kristauak jazarri Jainko bakarrarengan edo Jesusengan sinesteagatik, edo Jesusen jarraitzaileak edo kristauak izateagatik soilik, enperadoreari jainko bezala kultuan parte ez hartzeagatik baizik, eta, orokorrean, beste kultuekiko intoleranteak izateagatik. Aldiz, kristautasuna nagusitu zenean Erroman Inperioko erlijio ofizial bezala kristauak paganoak jazarri zituzten beste jainkoekiko sinesmen hutsarengatik.

Esan beharra dago erromatarrak oso toleranteak zirela erlijio gaitan, herrialdeak eta lurralde berriak konkistatzen zituztenean bertako jainko edo jainkosen kultua errespetatu ohi zutelarik, beren erlijioan maiz jainko eta jainkosa berriak bereganatuz, eta toki sakratuak, ohiturak eta aurreko kultuak errespetatuz ere. Toleratzen ez zutena intolerantzia zen, judutarrena eta Jesusen jarraitzaileena batik bat, eta hori izan zen jazarpen gehieneko jatorria.

Geroztik, Konstantino eta Lizinio Mendebaldeko eta Ekialdeko enperadoreek 313an Milango Ediktua promulgatu zutenean Inperioko biztanle guztiei, kristauak bereziki aipatuz, erlijio eta kultu askatasuna bermatzen zizkiena, kristauen jazarpena berehala amaitu zen, baina kristauak tolerantzia maila berria errespetatu beharrean paganoen jazarpen basati bati ekin zieten berrehun urtez iraun zuena, milaka pertsonak hil zituen eta ondare itzela hondatu zuena, eta beraiek pairatu izan zutena baino askoz gogorragoa, sistematikoagoa eta krudelagoa izan zena.

16.- Halere, kristauek ez zituzten aramearra edo hebraiera kultu-hizkuntza bezala hautatu ezta Belem, Nazaret edo Jerusalem hiri sakratuak hiriburu bezala hautatu ere, latina eta Erroma baizik.

Erromak eraikitako galtzara eta portu sare erraldoirik gabe eta latinik gabe kristautasuna ez zatekeen inoiz bazterreko eta tokian tokiko sekta txiki batetik pasa izango, Palestinatik haratago hedatzeko baliabiderik ez zuketelako izango.

Zenbait adituen ustean Jesus judutar harro eta fededun bezala, mezu oso identitarioak planteatzen zituen, Inperio Erromatarren agintearen aurka zegoen erabat eta bere misioa hein handi batean herri judutarra Erromaren menpe egotetik askatzea bezala ulertzen zuen, naturaz gaindiko era mesianiko batez bazen ere. Historialari eta filologo batzuen ustean askapenerako borroka bortitza onartzen zuen ere (eta tesi horren zantzuak Itun berriko zenbait pasartetan aurki daitezke), kristauen dotrinak irakatsi izan duenaren eta irakasten duenaren kontra.

Jesusen jarrera hura kontuan izanik bitxia eta harrigarria dirudi bere jarraitzaileek geroztik komenientzia hutsarengatik hartu zuten bidea, Erromatar Inperioa eta bere erakundeak onartuz aurrena, Inperioaren erlijio ofiziala bilakatuta Inperioaren erakundeez baliatuz modu guztietan gero, eta azkenik Erroma hirian bertan finkatuz egoitza sakratua.

Bide batez esanda, ebanjelioak ez ziren aramearraz edo hebraieraz idatziak izan, grekeraz baizik. Kontuan izan behar da adituen ustean Jesusen jarraitzaileak lehenengo hamarkadetan bi judutar talde txikietan bananduta zeudela: alde batetik judutar erdainduak eta lege mosaikoa betetzen zutenak bakarrik Jesusen jarraitzailek izan zitezkeela mantentzen zuen taldea, Jerusalemen biltzen zena batik bat eta zeinaren kideak baitziren besteak beste Done Petri eta Jakue, Jesusen anaia; bestaldetik talde helenikoa edo paulotarra, jentilak ere Jesusen jarraitzailek izan zitezkeela onartzen zuena. Ebanjelioak lehenengo taldeak idatzi zituen, baina grekeraz, Jesusen hizkuntza ez zena (eta Pauloren eragin handiz, esan bezala, Paulok Itun berriaren lehenengo testuak idatzi zituelako eta Jesusen bizitzari buruzko lehenengo interpretazioa plazaratu zuelako, grekeraz noski).

17.- Jesus jainkoa zela Konstantino enperadoreak erabaki zuen kristaua ez zenean.

Konstantino enperadoreak kristaua ez izanik (324an kristautasuna Inperioko erlijio ofiziala aldarrikatu arren, arrazoi politikoak tarteko -inperioa ideologikoki batzeko-, 337an hilzorian egon arte ez zuen bataioa onartu, hilzorian onartu zuela sinistu behar badugu) Nizeako kontzilia deitu zuen 325an Jesusen jarraitzaileen orduan zeuden hogeita hamar inguru sektak, erlijioaren dotrina edo oinarrizko dogmak batzeko eta finkatzeko asmoz.

Kontzilioko eztabaidak Jesusen izaeraren auzian kistatu ziren noizbait, eta egoera horri aurre egiteko Konstantinok, kristau fededun ez izanik baina enperadore bezala Erromako *Pontifex Maximus* zelarik eta beraz gai erlijiosoetan autoritaterik gorena, Atanasio izeneko apezpiku baten tesia egokia zela erabaki zuen, hau da, Jesus semea eta Jainko aita jainko bera zirela, tesi hori gehiago komeni zitzaiolakoan, eta hori onetsi arazi zion Kontzilioari, ordutik aurrena funtsezko dogma bilakatu zena.

Aurrerantzean tesi edo aldarrikapen hori izan zen kristautasunaren dogma ofizialaren ardatza, trinitatearena hain zuzen ere (Aita, Semea eta Izpiritu Santua, azken hori Konstantinoplako 381ko Kontziliotik aurrera), pertsona ez kristau batek erabakita, eta dogma berri hori onartzen ez zutenak edo besterik pentsatzen zuten guztiak eskumikatu egin zituzten.

18.- Judutarren aintzinako jainkoa, Jahveh, Kanaango hiru jainko ezberdinen nahasketa da.

Itun zaharreko Jahveh jainkoa Kanaango hiru jainko ezberdinen ezaugarrien nahasketa edo justaposizioa da. YHWH edo Jahveh bera, madiandarren jainkoa, Baal eta El kanaandarren jainkoen (Allah musulmanek jainkoa aipatzeko hitzaren jatorria, eta Itun zaharrean zenbaitetan “Elohim” izenarekin agertzen dena, “El” formaren plural maiestatikoa) identitateak eta ezaugarriak uztartu egin zituzten Jahveh batua osatzeko, aintzinako izkribuetan agertzen den jainkoa.

Beste deribazioa bat adibidez Beelzebub (*Belcebú*) deabruaren izena da. Beelzebub Baal- zebub (eulien Baal) hitzetatik dator, hau da Jahveh jainkoaren kontzeptuan uztartu zen hiru jainkoetako bera, Baal. Historiaren poderioz Kanaango filistiarrek eta israeldarrak etsaiak izatera pasa zirenean etsaien jainkoa, nahiz eta jatorriz israeldarren jainko bera izan, deabrua izatera igaro zen.

Eulien Baal deitzen omen zuten bere aurrean utzitako sakrifizioetan euli ugari biltzen zirelako.

Jahveh jarraitzaileentzat hasieran erregea zen figura nagusia, baina Elohim jarraitzaileentzat hasieran profetak ziren nagusi; esan bezala denboraren poderioz bi tradizio horiek judutarrengan uztartu egin ziren arren Itun zaharrean tradizio ezberdinen zantzuak aurki daitezke.

19.- Uholde handia ez da mito judutarra, sumertarra baizik.

Noeren eta uholde handiari buruzko istorioak ez zuten judutarrek sortu, aurreko mito sumertar bat bere egin zuten, erlijio judutarraren osagai gehienen modura (erlijio bat aurreko mitoen eta sinesmen arrotzen multzo bat izateak, kris

Halaber Mesopotamiako Gilgamesh-en poeman (K.a. 2100 inguru) mitoaren bertsio bat agertzen da, Uta-na-pistim-en kontakizuna. Hor elezaharraren ezaugarri nagusiak azaltzen dira: Enlil zeruen eta lurren jainkoa gizateriarekin haserretu egiten da eta uholde handi bat bidaltzea erabakitzen du, baina Ea jainkoak Uta-na-pistim heroia-ri untzi bat eraikitzeke agintzen dio eta barruan espezie bakoitzeko bikote bana eta haziak sartzeko, uholdea gertatzen denean bera da bizirauten duen bakarra eta abar.

20.- Jesusen ondoko lehen hamarkadetako jarraitzaileek ez zuten eratu erlijio berri bat, ez ziren antolatu fede desberdin bat bezala, eta azkenik ez ziren judutarrengandik banandu ere, judutarrek botatzen joan ziren beren erlijiotik baizik.

Jesus hil ondoko bere lehen jarraitzaileek ez zuten inolako asmorik agertu fede edo erlijio berri bat sortzeko, Jesus mesias judutarra izan zela bezala aitortzen zuten arren. K.o. 50 urtetik aurrera judutarrek Jesusen jarraitzaileak euren komunitateetatik botatzen hasi ziren, ados ez zeudelako Jesusen izaera mesianikoarekin.

Lehenengo mendearen bukaeran, erromatarrek Jerusalem 70an suntsitu ondoren judutarren matxinada armatu baten ondorioz, Yabneko rabbiak sinagogetan *birkat ha minim* otoitza irakurtzen hasi ziren ohiko otoitzeekin batera, “herejeen bedeinkapena”, Jainkoari hereje guztiak hiltzea erregutzen ziona, Jesus mesiasa kontsideratzen zutenak gogoan izanda.

Geroztik, gainontzeko judutarrek beren komunitateen kanpo utzita Jesusen jarraitzaileenak erlijio judutarraren adar bat (edo gehiago) izaten jarraitu zuen hamarkada askoz Jesus judutarren mesias bezala aldarrikatzen zuena, nahiz eta Pauloren garaitik eta Pauloren interpretazioa beste korronteen gainetik nagusitzen joan zenetik jentilak onartzen zituzten, astiro adar hori edo adar horiek lehenengo kristautasuna bilakatzen hasi ziren arte.

Joera eta egoera hori azaltzeko ez dugu kontuan izan behar bakarrik Jesusen aurreneko jarraitzaileak judutar hustzat hartzen zutela beren burua (izan ere egiazko judutar bakarrak, nahiz eta fede judutarraren adar guztiek hori bera pentsatzen zuten beren taldeez, saduzearrak, farisearrak, eseniarrak eta abar), Jesus bera bezala, baizik eta kontuan izan behar dugun ere bai Jesusek iragarritako bere berehalako etorrera edo parusiaren esperoan zeudela, eta horregatik ziur aski ez zuten ikusten ezta sentitzen ere erakunde berezi edo egonkor bat eratzeko beharrik, eta ez zuten hori sentitu eta egin hainbat belaunaldik igaro ziren arte.

21.- Milioika lagun jaiotzen, bizi eta hiltzen dira munduan Jesusen berririk izan gabe, Jainkoaren ustezko begiradapean.

Ebanjelioaren berri ona gizaki guztiontzat baldin bada eta Jesus denok salbatu behar gaituen mesiasa baldin bazen ez da ulertzen nola, Jainkoaren ustezko begiradapean, milioika lagun jaiotzen, bizi eta hiltzen diren gaur egun iraganean bezala Jesusen eta ebanjelioen berririk izan gabe.

Kristautasuna munduko erlijiorik handiena da munduan, 2.400 milioi inguru jarraitzaileekin, baina hala eta guztiz ere planetan jaiotzen diren milioika ume biziko eta hilko dira beraien bizitzan zehar Jesusi eta kristautasunari buruzko berririk izan gabe edo, izatekotan, oso ideia urruna eta azaleko bat besterik ez izaten. Zer esanik ez iraganean planetan bizi diren milioika lagunak, kristautasuna hazten zihoan bitartean.

Kristautasunak Jainko trinitarioa ahalguztidun bat aurkezten digu, eta beraz kristautasunak gizaki guztiontzako mezu bat baldin badakar zeinean bidaltzailea eta mezularia bera izateaz gain ahalguztiduna den, ez digute azaltzen zergatik ez zaien gizaki guztiei iristen. Ezta zergatik edukin kultural hertsietan bilduta datorren ere, bide batez esanda.

22.- Ebanjelioa denok salbatzeko Jainkoaren benetako mezua baldin bada ez da ulertzen zergatik ez dator testu fidagarriago batean denon eskura eta denentzat ulergarria.

Jaso ditugun ebanjelioetan (lehenengo Jesusen jarraitzaileek beste batzuk baztertu ondoren) egileak norgehiagoka agertzen dira zenbait pasarteetan ea zeinek hobekien kontatzen duen Jesusen bizitzaren pasadizoak. Horrez gain Itun berria Jainkoaren denok salbatzeko egiazko behin betiko mezua baldin bada ez da ulertzen nola edo zergatik Jainkoak ez digu testu fidagarriago eta batu bat helarazi, denok eskuragarria eta denok ulertzeko modukoa (irakurtzen ez dakitenek ere).

Egia esan testu bat ere ez dirudi euskarririk onena Jainko ahalguztidun batek fededun analfabeto gehiengo bati bere mezu salbatzaile bat helarazteko, oso gutxik ulertzen zuten hizkuntza batean idatzia gainera.

23.- Jesusek ez zuen inoiz elizak edo tenpluak eraikitzeke agindurik edo gomendiorik eman, ezta sinagogak ere.

Itun berriko testu osoan ez dago aipu bakar bat ere non Jesusek sinagoge aparta bestelako tenpluak edota elizak eraikitzeke agindua edo gomendioa, edo iradokizuna ere, adierazten duen, ezta inolako eraikin berrietan biltzeko eta erritoak egiteko. Sinagogak eraikitzeke ere ez zuen esan. Aldiz, Joan 4:21-24n Jesusek Jainkoa nonahi gurtu daitekeela dio, eta bere prediku asko kalean, mendian edo bazter naturaletan eman zituen.

Itun berrian esaten denez, lehenengo kristauak elkarren etxeetan biltzen ziren.

Konstantinoren garaian kristautasuna Erromaren erlijio ofiziala bilakatu zenean aurreneko eliza gehienak paganoen lapurtutako tenpluak ziren.

24.- Jesusek ez zuen inoiz esan apaizik, abaderik, gotzainik edo inolako kargurik izendatu behar zirenik, ezta bere izenean inolako erakunde erlijiosorik eratu behar zenik ere.

Itun berriko testu osoan ez dago adierazpen ezta pasarte bakar bat ere non Jesusek apaizen, diakonoen, gotzainen edo buruzagi edo bideratzaile erlijioso bakar bat prestatzeko, izendatzeko, aitortzeko edo errespetatzeko beharra aipatzen duenik. Eliza katolikoa, ortodoxoa eta fede kristaua aitortzen duten erakunde guztiak Jesus hil eta zenbait mende geroago (kristautasuna bera bezala) eratu ziren eta ezin dute inolako oinarriarik aurkitu Jesusen hitz bakar batean.

Jesus ez zen inoiz apaizez, gotzainez, fraideez, abadeez, diakonoez, aita santuez edo patriarkez, ezta kontzilioez mintzatu.

Tradizioz Done Petri lehenengo aita santua izan zela esaten da, baina Biblian ez dago arrastorik Jesusek Petri horretarako izendatu izanaz, eta aita santua edo Papa esamoldeak XI. mendean Urbano II.k hasi zen erabiltzen lehenengo aldiz.

Bere berezitasunekin guztiekin, zeren eta garaiko rabbiak ez bezala emakumeekin ibiltzen zen eta bere predikuak maiz Galileako naturako eremu zabaletan eman ohi zituen, esan bezala Jesus oso judutar fededuna zen goitik behera, eta ez zuen beste kargu erlijiosorik irudikatzen rabbiez beste eta ez zuen beste gune edo esparru bereziki erlijiosorik kontuan hartzen sinagogetako giroaz aparte.

Are gehiago, farisearren formalismo gehiegizkoa kritikatzeko modutik (farisearrei buruz jaso digun ikuspegi ezkorra berea ez den arren, geroztikakoa baizik, berak farisearrak asko errespetatzen zituen lege mosaikoa literalki betetzen saiatzen zirelako) eta bere jardun erlijioso herrikoia, irekia eta zuzenetik ondoriozta genezake ez dirudiela bere izenean erakundeak eraiki izana gustatu zitzaiokeenik. Agian, azkeneko hau ez da egia bat hipotesi bat baizik, besterik ez.

25.- Pauloren konbertsioa ezin daiteke egiazkoa izan, Pauloren garaian kristautasunik ez zegoelako.

Esan bezala Paulok Itun berriko lehenengo testuak idatzi zituen ebanjelioak baino lehen eta Jesusen inguruko aurreneko interpretazioa planteatu zuen. Bere bizitzaren garaian kristautasunik ez baldin bazegoen zertara konbertitu egin ote zen?

Paulo judutar praktikatzaile bezala bizi eta hil zen, horretaz harrotu zen uneoro eta bere bizitza osoan zehar, eta ez zuen inoiz erlijioz aldatzeko inolako asmorik agertu. Are gehiago, aipatu dugun bezala aitortzera iritsi zen nahiago zuela Jesusen jarraitzailea izateari uztea judutarrak salbatzeko baldin bazen (Erromatarrei 9: 3-5).

Ez dago kristautasuna erlijio berri bezala zegoenik esaterik I. mendean.

26.- Kristautasunak erlijio baketsu eta errukior bezala aurkezten du bere burua, baina milioika pertsonen erailketa bortitza eragin du historian zehar erlijio gerretan.

Kristautasunaren fakzioen arteko eta beste erlijioen jarraitzaileen aurka egindako gerretan hamarnaka milioi pertsona bortizki akabatu zituzten, eta gehiago zauritu edo elbarri utzi. Armadek gurutzeekin eta Jesusekin eta Jainkoarekin lagunduta zihoazela aldarrikatzen zuten sarraskietara abiatzen zirenean (esate baterako, naziak funtsez antikristauak ziren arren, soldadu alemanak “Gott mit uns” -Jainkoa gurekin-svastikarekin zeramaten plaka batean gerrian Bigarren Mundu Gerran).

Estatu kristauen armada guztiek kapilau militarrek dauzkate arerioak hiltzeko prestatzen diren bere soldaduen artean.

Arestian Eliza ortodoxo errusiarrek Ukrainiaren inbasioa onetsi du, eta agintari erlijiosok kristauen isilak kanpaina eta agresio militarren alde egiten duten aldarrikapenak baino are esanguratsuak izan dira eta badira egun ere.

Jesusen ustezko bakezaletasunaz hitz egitea legoke, Itun berriko testuetan ez delako bakezaletasun hori antzematen:

Mateo 10: 34-35 – *Ez pentsa munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baina banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitarengandik, alaba amarengandik eta erraina amaginarrebarengandik banatzera etorri naiz.*

Lukas 22: 36 – *Orain, bada, poltsa duenak har dezala eta berdin zatukoa duenak; eta ezpatarik ez duenak sal dezala soingaineko, hura erosteko.*

Hala eta guztiz ere, Jesusi baino Kristori egoki zaion ustezko bakezaletasun horrekin, dotrina kristauaren funtsean dagoena, kristautasunaren jarduna historian ez da oso sarritan bat etorri.

27.- Pekatu orijinala ez da Biblian agertzen.

Pekatu orijinala ez da Biblia osoan behin ere agertzen, ez Itun zaharrian ez Itun berrian. Pekatu originalaren teoria eta dotrina ez zen sortu Agustin Hiponakoaren eta Pelagiorene arteko V. mendean izandako eztabaida batean planteatu zuten arte (agian Ireneo gotzaina aitzindaritzat har genezake gnostikoekin II. mendean izandako polemikarengatik).

Pekatu orijinalaren mitoa, jaiotzean genetikoki eta bagaje gisa jasotzen omen dugun jatorrizko desgaitasuna, bataioan garbitu beharrekoa, garrantzi handiko kontzeptua da dotrina kristauan, baina dakigunez Jesusek ez zuen inoiz aipatu, eta Biblia osoan ez da agertzen.

28.- Antzinako judutarrek ez zuten hil ondoko bizitza batean sinesten.

Kristoren garaiko judutar batzuek arimaren existentzian, hil ondoko bizitzan eta azken judizioan sinesten zuten, eta hortik hartu zituzten Jesusen jarraitzaileek eta gero kristauak ideia horiek, baina sinesmen guzti horiek berri samarrak ziren judutarren artean.

Adibidez, Kohelet edo Ecclesiastesen zera esaten da (9:5):

Badakite biziek hil beharra dutela;

hilek, ordea, ez dakite ezer,

ez dute aurrerantzean saririk;

galdua da haien oroitzapena.

Palestina Inperio Persiaren menpe egon zen hiru mendez, eta persiarren erlijioak eragin itzela izan zuen judutarrengan, ideia horiek txertatuz, gorputzean arima bat bizi zela, hil ondoan bizirauten zuena, eta Lurrean egindakoaren arabera azken judizio batean epaituko zutena (beste ideia batzuen artean, adibidez aingeruak eta deabruak izatea) hain zuzen ere, azken ideia hori azalduko dugun bezala erlijio egiptiarrean zentrala izan zelarik ere bai.

Halaber Jesusen aurreko aroan Palestina oso helenizatua zegoen Seleukotarren dinastiaren erreinupean, Biblian Makabeoen bi liburuetan agertzen den bezala eta Jakinduria liburuak islatzen duen bezala (ebanjelioak eta Itun berriko testuak esan bezala ez ziren aramearraz edo hebraieraz idatziak izan, grekeraz baizik), eta Pitagorasen eta bereziki Platonen filosofia -arimaren esistentziari eta hilezkortasunari buruzko tesi guztiekin- eta kultu misteriotsu orfikoek eragin handia izan zuten ere judutar askorengan, Jesusen jarraitzaile eskasak barne, eta gero kristauengan arima gorputzetik bereizteko (eta kontrajartzeko) eta arimaren hilezkortasuneko ideietan.

Esan beharra dugu arima hilezkorren ideia judutarrek (eta ondorioz Jesusen jarraitzaileek eta gero kristauek) ez zutela bere osotasunean jaso, eta gaur egun ere ez zituzten eta ez dituzte ez judutarrek eta ez kristauek arima eta gorputza (psique eta soma, termino heleniarretan) erabat bereizten, eta horregatik gorputzen eta arimaren baterako berpizkundean sinesten dute gaur egun oraindik ere.

Aldiz, Jesusen garaian oraindik judutar askok ez zuten hil ondoko bizitza bat zegoenik sinesten, saduzearrak kasu (beste batzuk bai, eseniarrek esate baterako, Jesusekin erlazionatuta egon zirenak -Jesusen edo kristauen aitzindariak zireneko ustea funtsik gabekoa den arren-), eta Kristoren aurreko 300 urte inguru baino lehen ez dago sinesmen horien arrastorik judutarren artean. Aurreko judutarrek Jainko batean sinetsi arren (aurretik politeistak izandakoak ziren, inguruko herriak bezala) ez zuten pentsatzen ezta sinisten arima hilezkorrik zegoenik, ezta hil ondoko bizitzarik, ezta judizio finalik ere.

29.- Ama birjina ez zen birjina, ebanjelioek diotenez Jesusek anaiak eta arrebak zituelako.

Sortze garbiaren dogman sinistu arren, ebanjelioetan Jesusen anaiak eta arrebak aipatzen dira behin baino gehiagotan, beraz, Maria ezin zen birjina izan sortze guztiak mirakuluzkoak izan ziren salbu.

Jesusek gutxienez lau anaia (Santiago, Jose, Judas eta Simon) eta bi arreba (izenak ez dakizkigu, tradizioz Maria eta Salome deitzen zaie) zituen.

Ebanjelioetan Jesusen anaiak eta arrebak zazpi aldiz aipatzen dira: Markos 3:31-35, 6:3, Mateo 12:47-50, 13:55-56, Lukas 8:19-21, Joan 2:12, 7:3-10. Halaber Apostoluen Eginetan 1:13, Korintoarrei Lehen Gutunean 9:5 eta Galaziarrei Gutunean 1:19 Jesusen anaiak eta arrebak aipatzen dira.

Flavio Josefo garaiko historialariak Jesus hil ondoren bere anaia Jakuek Jerusalem jarraitzaile talde bat gidatzen zuenaren berri ematen du.

Eliza kristauek birjintasunaren kontraesana anaiak eta arrebak lehengusuak eta lehengusinak zirela interpretatzen eta aldarrikatzen dute, edo Joseren aurreko ezkontza baten seme-alabak, baina Biblian anaia-arrebak aipatzen diren besteetan horixe bera dira, anaiak eta arrebak.

30.- Kristautasunak kultura klasikoa hondatu egin zuen.

Kristauak Erromako Inperioan nagusitu zirenean Alexandriako Serapeum-a, non Liburutegi zaharreko pergaminoak gordetzen ziren, hondatu zuten 392an eta Atenasko Akademia -Platonek sortua- itxi zuten 529an, filosofoak eta irakasleak jazarri zituzten eta kultura klasikoaren garapena eten egin zuten ia ito eta desagerrarazi arte. Egia da geroztik kultura klasikoaren memoria gorde zutela kristauak monastegietan eta beste hainbat leku eta erakundeetan, milurteko batez, baina gorde zutena aurretik hondatu izan zutenaren jarauntsiaren zati bat besterik ez zen.

Tenpluak eta tenpluetan eta etxeetan, jauregietan, merkatuetan eta plaza eta esparru publikoetan zeuden artelan eder, bakan, paregabe eta errepikaezin gehienak txikitu zituzten, oso gutxi salbatu zirelarik.

Kultura sekular bizia itotzeraino eta itzaltzeraino zapaltzeaz aparte, aurreko mendeetako *corpus*-a bi modutan hondatu zuten kristauak, edo liburuei zuzenean su emanaz ia bi mila urtetan (Paulok egin zuen lehenengo erreketak eta duela gutxi arte egin dituzte) antolatu zituzten ehundaka erreketak publikoetan, edo bestela lanak gordetzeko ez kopiauz.

Antzinatean eta V. mendean pergaminoa nagusitzen hasi zen arte liburu gehienak papiroetan eskuz idatzita zeuden, eta euskarri horrek oso urte gutxi irauten du. Horregatik garaiko liburutegietan kopiazaileak bazeuden beti jo eta su lanean, testuak eskuz kopiazen gal ez zitezen. Kristauak liburutegiak itxi, erre edo suntsitu zituzten, kopiazaileak etxera bidali zituzten eta horrela testuen transmititzeko eta gordetzeko prozesua eten egin zuten.

Hori kasurik onenean, zeren dokumentatuta baitaude kasu ugari zeinetan kristauak egin zutena zera izan baitzen, papiro biribilkiak harraskatu, batzuetan liburu osoak, gainean testu erlijiosoak idazteko.

Platonek (kristauak platonikoak direlako goitik bera) eta Aristotelesek (Poetikaren bigarren liburua, *Exortazioak* eta magiari buruzko liburu bat galdu ziren bakarrik) suerte

izan zuten, baina galeraren tamaina ez da erreza ulertzen, Gizateriaren historiako genozidio kulturalik handiena eta ziur aski garrantzitsuena izan zelako.

Euclidesen *Tangentziak*, *Porismak*, *Engainuen eta Azalen liburua*, Claudioren autobiografia eta historiari buruz idatzi zituen hirurogeita bederatzi liburuak, Plinioren hirurogei inguru, Trajanoren *De bello dacico*, Zizeronen lau tragedia grekoak, Polibioren eta Posidonioren historia liburu guztiak (ehun inguru), Kornelio Nepoteren hogeita zortzi, Tito Liviore 142 liburuetatik 35 iritsi zaizkigu bakarrik, Plutarkoren 278tik 130, gehienak partzialki, Saforen 10.000 bertsoetatik 70 jaso ditugu, ... galdutako lanen zerrenda amaiezina litzateke, eta horiek bakarrik aipuengatik bere esistentziaren berri daukagunak.

Kristauak noizean behin publikoki harrotu egiten dira Erdi Aroan salbatu zuten frakzioaz... beraiegandik salbatu zutenaz hain zuzen ere, kristautasunarekin alderatuta inbasio barbaroen, gerren, suteen eta katastrofe naturalen efektua ia anekdotikoa izan zelako hondamen itzelean.

31.- Pedro ermitauaren gurutzada.

Urbano II. aita santuak 1095an Israel eta 'Lur sakratuak' mahomatarrengandik berreskuratzeko deia proklamatu zuen ondoren 'Pedro ermitaua' izeneko pertsonaia mitiko bat agertu zen Erdi Aroko Europan, eta gurutzada edo erromesaldi herrikoi bat antolatzeko misioa zeruetatik jaso zuela esaten ibili zen leku batetik bestera.

1096an inolako prestakuntza militarrik ez zuten 40.000 inguru lagun abiatu ziren Palestinarantz, emakumeak eta ume asko barne. Bidean aurkitu zituzten judutar guztiak akabatu zituzten (kronikek diotenez Mainzen bakarrik 1.100 inguru). Nizearanzko bidean turkiar seljuktarrek gurutzatu edo erromes ia guztiak hil zituzten, emakumeak eta haurrak salbu, esklabok bezala saldu zituztenak.

Hurrengo urteetan, 1096tik 1099ra, armada kristau batek Anatolia, Libano, Palestina eta Siriaren zati bat indarrez hartu zituen Lehenengo Gurutzada ofizialean. Jerusalem hartu zutenean ia biztanle guztiak erail zituzten, musulmanak, judutarrak eta Jesusen garaietatik bertan bizi ziren kristauak barne.

32.- Aro Modernoan Inkisizioak eta Europa eta Amerika protestanteko kristauek milaka pertsona erre zituzten herejeak edo ustezko sorginak izateagatik.

Lurralde protestanteetan XV-XVIII. arteko Sorgin-ehiza izeneko histeria kristauaren aroan ehun mila inguru lagun erre zituzten ustezko sorginak izateagatik, gehienak emakumeak, nerabeak eta umeak barne, gehienak bere burua defenda ezin zezaketen andre bakartiak, eta guztiak pobreak. Mende beretan lurralde katolikoetan Inkisizioak bi mila pertsona inguru hil zituen ustezko herejeak edota sorginak izateagatik.

33.- Inkisizioak eta auzitegi erlijioso protestanteek zientzia eta letren garapena eta hedapena galarazi edo oztopatu zuten mende askoan.

Esplizituki kristaua edo kristauen dogma eta dotrinei egokitzen ez zitzaaien zientzia, arte eta letra oro jazarri zuten Jesusen jarraitzaileek eta kristauak hogei mendeetan zehar.

Hipatia (IV mendea), Miguel Servet (1553), Giordano Bruno (1600), Luzilio Vanini (1619) eta beste hainbat erail zituzten eta Pietro d'Avano, Galileo eta beste asko espetxeratu zituzten kristauak ideia berriak edota aurrerapen zientifikoak deskubritzeagatik eta plazaratzeagatik bakarrik.

Beldurra, isiltasuna, atzerapena eta pobrezia neurtzen zaila da, baina historiaren abiadura nolakoa izan zen kristauak nagusitu baino lehen eta nolakoa izan den kristauak gizarteetan indarra galtzen joan diren heinean, Errenazimendutik gaur egun arte, aztertzea besterik ez dago. Bizitza praktikorako oinarrizkoak diren zenbait ezagutza teknikok mila urtez galdu ziren (zementua esate baterako, erromatarrek erabiltzen zutena eta XIX. mendera arte berreskuratu edo berriro deskubritu ez zena), eta azpiegitura publikoak eta komunikabideak zaharkitu edo desagertu ziren. Izurriteen eta goseteen biktimen kopurua, bizi-itxaropena eta haurren heriotza-tasak izugarriak izan ziren kristauen agindupean.

Kristauak oso kultura aberatsa sortu zuten, materiala eta materiagabea, hori ukatzerik ez dago. Filosofia, literatura, musika eta arte eder guztiak nabarmenak sarritan eta bikainak ere izatera iritsi ziren askotan, Bach bat adibidez ez dago imajinatzerik debozio kristaurik gabe, eta Jesusen mezu etikoa eta egile kristauena zabaltzen egundoko lan bat egin zuten ere bai, baina kultura eta jardun eta ondare kristau hori guztia ez da hondatu zuten kultura klasikoa konpentsatzeko modukoa.

34.- Kristautasunak kultura zientifikoaren hedapena eragotzi egin du historian zehar.

Kristauek eta beren erakundeek ez zuten bakarrik zientzia, ikerketa eta emaitza edota hipotesi zientifikoak partekatzea debekatu, eta zientzilariak eta beren laguntzaileak erail edo espetxeratu beraien sinesmenentzat arriskutsuak zirelakoan, zientzia hedatzea eta irakastea debekatu edota oztopatu egin zuten ere mende luzeetan.

Eskola guztietan, ez erlijiosoetan bakarrik, haurrei dotrina kristaua (munduaren sorreraz, naturaz, gizakiaren izaeraz...) irakastea inposatu zuten ahal izan zuten guztietan ezagutza eta ikuspuntu zientifikoa edota izpiritu kritikoa eskuratzen eta garatzen galaraziz.

XX. mendean oraindik Estatu Batuetako Tennessee estatuan Butler Legea promulgatu zuten eboluzioaren teoria eskoletan irakastea debekatzen zuena, eta 1925 eta 1967 urteen artean indarrean egon zena. Lege hori aplikatuz John Scopes izeneko irakasle bat kondenatu zuten eskola batean Darwinen eboluzioaren teoria irakasteagatik.

35.- Kristautasunak izpiritu kritikoaren aurka egin du uneoro historian zehar.

Blasfemia jainkoen aurka hitz egitean edo aritzean egiten den krimena ez zuten kristauek asmatu, Sokrates blasfemiarengatik kondenatu zuten Atenasen eta buruaz beste egitera behartu zuten Jesus jaio baino lauhun urte lehenago. Halere, monoteismoek eta kristauek (eta musulmanek gero, gai honetan eta gainontzeko gehienetan okerrenak) blasfemia zapalkuntza eta intolerantzia maila berri batera eramane zuten Mendebaldeko gizartearen eta kulturen izpiritu kritikoa (iritzi librea, umorea, zientzia, literatura idatzia eta eszenikoa, humanitateak...) itota izan zituena milurteko batez baino luzaroago, Justiniano enperadoreak *Corpus iuris civilis* promulatu zuen baino lehenagotik Iraultza Frantzesak 1789an adierazpen askatasuna eta prentsa askatasuna eskubideak bezala aldarrikatu zituenetik baino askoz beranduagoraino. Irlandan 2018an indargabetu zuten blasfemia delitua erreferendum bat egin ondoren eta Espainian oraindik indarrean dago.

Kontuan izan behar da blasfemia ustezko "krimen" bezala ez zetzala bakarrik biraoak edo juramentuak esatean, dogma erlijiosoaren aurka edo nolabait iraingarritzat (zentzu zabalean) har zitekeen edozer esatean edo egitean, sinesgabetasuna adieraztea barne, aipatu ditugun esparru guztietan: iritzi librea, umorea, zientzia, literatura idatzia eta eszenikoa, humanitateak... Gaur egun zigor legalak isunak edota kartzelakoak izan ohi dira, baina iraganean heriotza zigorra zen zigorrik ohikoena eta askotan tortura publikoa.

36.- Eliza katolikoan 1870. urtetik aita santuak dotrinari buruzko esanak hutsezinak direla aldarrikatzen duen araua indarrean dago.

Arau horren arabera, Aita santuak *ex cathedra*, hau da, dotrina finkatzeko asmoarekin adierazpenak plazaratzen dituenengan ezin da okertu eta bere hitza egia ofiziala da, edozein astakeria edo gezurra nabaria esaten baldin badu ere, nahigabea nahasten baldin bada ere.

37.- Eliza katolikoak arrazionalismoa, liberalismo politikoa zein erlijiosoa eta kontzientzia eta kultu askatasuna gaitzetsi zituen eta bekatuak zirela aldarrikatu zuen.

XIX. mendeko hainbat aldarrikapen ofizialetan, bereziki *Mirari vos* (1832), *Qui pluribus* (1846) eta *Quanta cura* (1864) entzikliketan, Eliza katolikoak dotrina hau finkatu zuten: arrazionalismoa, liberalismo politiko edo erlijioso mota oro, eta kultu askatasuna berez gaitzesgarriak zirela, katolikoentzat debekatuta zeudela eta bekatu larriak zirela.

38.- Kristautasunak joera matxista agertu du historian zehar.

Eliza katolikoak eta Eliza erreformatu gehienek joera eta portaera matxista agertu dute historian zehar.

Aditu gehienen ustean Biblian agertzen diren Pauloren gutunetako testuak (adibidez, Efesiarrei 5:22-23, 1 Korintiarrei 14:34), emakumearen subordinazioa eta men egitea agintzen eta justifikatzen dutenak ez dira bereak, bere jarraitzaileenak baizik (egiazki Paulok kolaboratzaile andrazkoak zituen eta emakumeak sinagogetan otoitzak zuzentzea onartzen zuen esplizituki), baina testu horietan eta Jesusen kolaboratzaile gehienak gizonezkoak izanean oinarrituta emakumeei apaiz edo artzain izatea debekatu diete (zer esanik ez elizako goiko karguak) eta familia barnean senarrarekiko posizio subordinatua izan behar dutela aldarrikatu dute.

Bestaldetik Agustin Hiponakoa eta beste kristau patriarka eta doktore ugari muturreko misoginoak ziren eta andreek gizon fededunak praktika onetatik desbideratu besterik ez dituztela egiten pentsatzen eta esaten zuten.

39.- Kristautasunak joera klasista agertu du historian zehar.

Kristautasunaren joera klasista ez da inoiz dotrina ofiziala izan, Jesusen anaitasun mezuarekiko kontraesana nabariegia litzatekeelako, baina praktika bestelakoa izan da.

Eliza katolikoan eta ortodoxoan, eta Eliza erreformatuetan ere, goi karguak (patriarkak, aita santuak, gotzainak, kardinalak) okupatu dituztenak aitonen semeak izan ohi dira eta familia aberatsetatik eta boteretsuetatik etorriak.

Kongregazio eta ordena erlijioso gehienetan anaia eta ahizpa legoak egon ohi ziren Kontzilio Vatikano II. arte (1959-1965), gizarte jatorriko xumekoak, lan fisikoak egitearen ardura beren gain hartzen zutenak eta askotan beste kideen zerbitzarik moduan jokatzen zutenak.

40.- Eliza Katolikoaren barne funtzionamendua ez da demokratikoa, autoritarioa baizik.

Aita santua inolako kontrolik gabeko monarka absolutua da Vatikanon bertan eta planeta osoko Eliza katolikoan, eta Aita santuak eta kardinalak elkar hautatzen dituzte, Elizako beste kideen iritzia edo parte hartzea kontuan izan gabe.

41.- Kristauek duela gutxi arte liburuak sistematikoki eta masiboki debekatu eta erre egin dituzte.

Pauloren garaietatik eta duela gutxi arte kristauek liburuak sistematikoki eta masiboki erretzeari ekin diote, bereziki agintean egon diren lurraldeetan.

Eliza katolikoak adibidez *Mirari vos* (1832) entziklikan prentsa askatasuna ez zutela inoiz aski gaitzesten deklaratu ondoren ondoko hau zioen: “12. Erabat ezberdina izan zen beti Elizaren disziplina liburu txarren argitalpena esesten Apostoluen garaietatik: beraiek liburu kopuru handiak erre zituzten”.

Hori gutxi balitz, liburuak eta edozein motatako argitalpenak zentsuratu (inprenta asmatu zenean Eliza katolikoak berehala aurretiko zentsura agindu zuen Latrango Kontzilioan, 1515an) eta liburu debekatuen zerrendak egiten eta plazaratzen zituzten kristauek. Eliza katolikoak adibidez *Index librorum prohibitorum* Liburu debekatuen aurkibidea aldizka plazaratu zuen 1564 eta 1966 urteen artean.

Naziek ez zituzten asmatu jendaurreko liburu erreketak, kristauei fede autuak eta antzeko ekitaldiak kopiatu zizkieten.

42.- Eliza katolikoak Biblia bera irakurtzea debekatzen eta eragozten zuen duela gutxi arte.

Kongregazio kristauek, eta Eliza katolikoak bereziki, fededunak eskriturak zuzenean irakurtzea arriskutsutzat jo zuen historikoki eta ahal izan zuten guztia egin zuten hori gerta zedin saihesteko. Antzinaroan eta Erdi Aroan ez zegoen irakurtzeko aukera handirik oso liburu gutxi zeudelako eta herriaren gehiengo zabalak ez zekielako irakurtzen, eta zekitenen artean gehienek ez zekitelako grekeraz edota latinez, baina alfabetatze maila goraka joan zen heinean eta inprenta asmatu eta hedatu zenean batez ere, neurriak hartzen hasi ziren.

1229an Tolosako Kontzilioak laikoei Bibliaren kopia bat izatea debekatu zien, eta 1234an Tarragonako Kontzilioak garaiko hizkuntzetara itzulita zeuden testu sakratu guztiak erretzea agindu zuen.

Harrigarria dirudien arren 1559an Liburu Debekatuen Aurkibidean Bibliaren berrogeita bost itzulpen agertzen ziren.

1758an Benedikto XIV. aita santuak Biblia hizkuntza nazionaletan irakurtzen debekatu zuen.

43.- Kristauek ez zuten esklabotza ezta heriotza zigorra ere gaitzetsi mende luzeetan zehar.

Biblian agertzen diren hainbat testuetan ere (Pauloren izenean, baina adituen ustez benetan bere jarraitzaileenak direnak eta bera hil ondoren idatziak izan zirenak) esklabotza onetsi egiten da:

Titore 2: 9-10, 9 Esklaboak nagusien menpeko izan daitezela gauza guztietan: bete dezatela beraien gogo, ezezkorik esan gabe 10 eta lapurretarik egin gabe, baizik eta leialtasun betea agertuz, Jainko gure Salbatzailearen irakaspena gauza guztietan ohara dezaten.

Timoteori 1: 6, 1, 1 Esklabotzaren uztarpean dauden guztiek har ditzatela beren nagusiak ohoragarritzat, Jainkoaren izenaz eta gure irakaspenaz inork gaizki hitz egin ez dezan.

Efesiarrei 6:5-9 5 Esklaboak, izan mundu honetan nagusi dituzuenen esaneko, erabateko begirunez eta bihotz-bihotzez, Kristoren esaneko bezala: 6 ez jagolearen begiradapean edo gizakiei atsegin izateko bakarrik, Jainkoren nahia gogoz betetzen duten Kristoren esklabo bezala baizik. 7 Bete ezazue gogo onez zeuen zerbitzua, Jaunarentzat bezala eta ez gizakiarentzat. 8 Badakizue, egindako egiaren neurrian sarituko duela bakoitza Jaunak, esklaboa nahiz librea izan. 9. Zuek ere, nagusiok, joka ezazue era berean esklaboekin, mehatxurik egin gabe; hartu kontuan haien eta zuen nagusia zeruan dagoela, eta hark ez duela bereizkeriarik egiten.

Gangrako Kontzilioak (340) esklabuak beraien jabeen aginduak desobeditzera animatzea bekatu zela aldarrikatu zuen.

Paulo III. Aita santuak esklaboak izatea eskubide bat zela aldarrikatu zuen 1548an, elizgizonek ere zeukaten eskubide bat, eta 1838 urtea arte (Gregorio XVI) Eliza katolikoak ez zuen esklaboen trafikoa bekatu bat zela ofizialki deklaratu.

Heriotza zigorrari dagokionean, Eliza Katolikoak hasieratik onartu zuen *Evangelium vitae* entziklika arte (1995), eta 2018an katixima aldatu zuen gaitzesteko (aipatzekoa da Vatikanoko estatuan bertan heriotza zigorra indarrean egon zela 1969 urtea arte), eta Kristautasunaren patriarkak eta egile nagusiek heriotza zigorra defenditu zuten historian zehar: Agustin Hiponakoak *Jainkoaren hirian*, Akinoko Tomasek, Duns Scotok, Gasteizko Frantziskok, Tomas Morok eta Francisco Suarez-ek, heriotza zigorraren zilegitasuna argudioekin justifikatzen zuten.

44.- Kristauek santuk bezala izendatukoak maiz ez dira pertsona eredugarriak izan.

Kristauen dotrinan, katolikoan artean eta hainbat eliza erreformatuetan, saintuak beren bizitzarengatik besteentzat eredu bezala proposatzen diren pertsonak dira, baina maiz ez dira batere gizaki eredugarriak izan. Agustin Hiponakoa, esate baterako, santu nabarmenetakoa eta kristautasuna eratzen lagundu zuen filosofo nagusietako bat, bere semea abandonatu zuen ume koxkor bat zela eta zalantzarik egin gabe (Siddharta Gautama bezala), eta eskuak odolez zikinduta dauzkaten santu militarrik ugari daude (Udalriko Augsburgokoa, Olaf Haraldson -giza hezurak erabiltzen zituen pertsonak hiltzeko-, Luis IX Frantziakoa, Joana Arc-ekoa, eta abar).

Horrez gain, santutegi katolikoan kriminal dezente dago, adibidez, Vladimir I.a Kievekoa bere anaiak hil zituen koroa eskuratzeko, eta emazte ugari eta 800 maitale izan zituen, edo Joan Krisostomo zibilizaziozida fanatikoa, V. mendean Heladeak sortutako eskuizkribu guztiak - garaiko liburu mota bakarrak-, zibilizazioaren funts guztiak jasotzen zituztenak (filosofia, zientzia, demokrazia, literatura lirikoa eta dramatikoa, etika, historia, artea, arkitektura, eta abar), desagerrarazi izanaz harrotzen zena.

Gaur egungo zenbait santuez ere beharbada zer esana legoke, esate baterako Kalkutako Teresari buruz zaintzen zituen gaixoei botikak ukatuz beren sufrimendua eskaintzeko erreguz, bera gaixo erori zen arte, eta jakina berak botikak eskatu eta erabili zituela, edo hiesa sexu portaera desagokiaren ordain aproposa zela zioena, edota milioika dolar desbideratu zituen. Juan Pablo II. ere santu egin zuten milaka sexu abusu kasu estali zituela jakinda.

45.- Eliza katolikoan, aita santuak ere ez dira ereduazko kristauak izan askotan.

Hainbat adibide:

- Eztebe VI (896-897), aurreko Erromako gotzaina izandako Formoso, hilda zegoena, hilobitik atera zuen, jantzi, eseri, eta epaitu egin zuen. Epaietan galderak zuzentzen zion gorpuari, eta erantzunak antzetzeko beste gizon batek burua eragiten zion beste batek testuak irakurtzen zuen bitartean. Jakina kondenatu suertatu zela, bedeinkatzeko erabiltzen zituen hiru hatzak moztu zizkioten eta gorpua Tiber ibaira bota egin zuten.
- Joan XII (955-964), *il papa fornicario*, hamazortzi urterekin aita santu izendatu zuten eta Vatikanoa burdel bat bihurtu omen zuen.
- Joan XIII (965-972) ehundaka maitale izan zituen ere aita santua izanda, bere arrebak barne, eta diru zorra erraldoiak egin zituelako jokoan.
- Benedikto IX (1032-1044, 1045, 1047-1048), Latrango jauregian ume inozoei praktika pederastak irakasten omen zien. Done Petri Damionen esanetan “deabru bat apaizez jantzita” zen.
- Bonifazio VIII (1294-1303), maitale ugari izan zituen Erromako gizonen, emakumeen eta haurren artean (hori zuzenean leporatu ziotenean berak ez zuen ukatu). Arima hilezkor bat zegoenik, Jesusen ama Maria birjina zenik eta Jesus Jainkoa edo Jainkoaren semea zenik jendaurrean ukatzen zuen.
- Urbano VI (1378-1389), zerbait bere aurka ustez azpilana egitea egotzita lagun dezente erail arazi zituen, eta akabatzen zutenean haien garrasiak aski ozenak ez zirelako kexu egin ohi zen.
- Alejandro VI (1492-1503), aurreko Calixto III.en iloba, aita santuko titulua lortu zuen kardinalak erosten, eta kargu eklesiastikoak saldu zituen aberasteko.
- Leon X (1513-1521), bere agintea inauguratzeko ume bat urrez margotu zuen eta Erromako plaza eta kaleetatik desfilatzera bidali zuen. Umea egun horretan bertan hil ondoren festarekin segi zuen. Pekatuak barkatzeko induljentzien salmentaren praktikarekin hasi zen, Luteroren erreforma eragin zuena.

46.- Infernuaren ideia ez da kristaua ezta judutarra ere, aurretikoa baizik.

Egiptiarrek nabaria denez hil ondoko bizitza batean sinisten zuten, eta hil ondoren jainkoek pertsona bakoitza epaituko zutela (eszena hori maiz agertzen delarik haien margolanetan, Osiris balantza batekin hildakoaren bihotza pisatuz beste platerean justiziaren luma ipinita), eta kondenatu suertatuko zirenak tradizio baten arabera suzko putzuz infernu batera bidaliko zituztela betiko erretzen sufritzeko (beste bertsio batean kokodrilo bati botatzen zioten kondenatua, jateko eta modu horretan betirako hil zedin).

Jesusen garaian Jerusalemgo errebaletan Hinon izeneko haran bat zegoen, eta bertan Israelgo antzinako erregeek sakrifizioak eskaini izan zituzten, abereena eta gizakiena (umeak barne), garaiko beste erlijioetan egiten zen modu berean. Praktika hori baztertu zenean toki madarikatutzat hartzen hasi zen eta sakrifizio bat egiten harrapatzen zutena bertan hiltzen omen zuten zigortzeko eta gorpuak agerian uzten lurperatu beharrean (denboraren poderioz lurperatzen ez zituzten gorpu guztiak han botatzen eta erretzen zituzten).

Hori gutxi balitz, Isaías profetak beste madarikazio bat bota zien sakrifizioekin jarraitzen zutenei (kultu zaharra uzten behartzeko) jango zuten harrak ez zirela inoiz hilko eta erreko zituen sua ez zela inoiz etengo esanez (Isaías 66:24):

Eta, tenplutik irtetean, nire kontra altxatu zirenen gorpuak ikusiko dituzte: karraskatzen dituen harra ez da hilko, ezta erretzen dituen sua itzaliko ere; mespretxagarri izango dira gizaki guztientzat.

Jesusek géenna (gueh hinnóm, Hinon arana) aipatzen zuenean beraz, idazteunen jakitun ona izaki, horretaz ari da; Markos 9:47-48: *Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atara; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiekin infernura jaurtia izan baino; han ez da barruko harra hiltzen, ez eta sua itzaltzen.*

Kristauak irakasten zuten eta duten infernua bi tradizio horiek uztartzen dituen sinesmena da.

47.- Deabruak Biblian ez du akerraren forma hartzen, Pan jainko grekeraren forma eman zioten.

Bibliako testuan ez da aipatzen edo deskribatzen deabruaren itxura nolakoa den. Kristautasuna zabaltzen hasi zenean eta erlijio pagano politeista estigmatizatu nahian jainko pagano baten forma esleitu zioten deabruari tradizioz, Pan-ena (paniko sentimenduari izena eman zion jainkoa), aker batena.

Aitzitik erlijio klasikoan Pan ez zen jainko gaiztoa, artzainen basa jainko bat baizik, oihanetan bizi zena eta flauta jotzen zuena, jainko alai eta labaingarri bat ninfen eta nesken atzetik ibiltzen zena beti, poztasunaren eta askatasunaren pertsonifikazio idealizatu bat nonbait. Kristauen gorrotoak berriz deabruaren eta gaizkiaren irudikatze bat bihurtu zuen.

48.- Erro erlijioso beratik etorri arren, kristauen intolerantziak judutarrak egotzi zituen Europatik.

Erdi Arotik eta Europa osoan zehar kristauek judutarrak getoetan baztertu zituzten, gizartean eta legerian diskriminatu zituzten, eta azkenik hirietatik eta herrialdeetatik egotzi zituzten sustraiak eta ondare gehienak galaraziz, hala nola Ingalaterratik (1290), Bernatik (1294), Frantziatik (1306), Zurich-tik (1348), Germaniako Erromatar Inperio Santutik, Gaztelatik eta Aragoitik (1492) eta Portugaldik (1496).

Horrez gain aldizkako pogrometan milaka pertsonak hil zituzten kristauek, umeak, adinekoak eta emakumeak barne, judutarrak izateagatik beste arrazoirik gabe.

Baztertze eta segregazio historia hori badakigu XX. mendean nola amaitu zen.

49.- Kristauek ez zuten erregimen naziaren aurka egin.

Eliza katolikoak oso goiz agertu zuen komunismoaren errefusa, ideologia hori sortu zenetik XIX. mendean, baina ez zuten bera egin faszismoarekin eta nazismoarekin.

Hitler kantzilerra izendatu zutenean eta berehala, 1933an, Eliza katolikoak berarekin Konkordatu bat negoziatu eta sinatu zuen urte horretan bertan.

Judutarren segregazioak, deportazioak, kontzentratzeak, basakeriak eta hilketa sistematikoa hasi zirenean Vatikanok edo Aita santuak gertatzen ari zenaren jakinaren gainean egon arren ez zuten holokaustoa salatu gerra amaitu eta sei miloi pertsonen genozidioa burutu baino lehen, eta gerra bukatu ondoren Elizako agintari askok nazi kriminalak justiziatik ihes egiten lagundu zien.

Kroazian hainbat elizgizon katolikoek serbiarren genozidioan parte hartu zuten, eta gerra bukatutakoan Elizak justiziatik ihes egiten lagun zien ere bai sarritan.

Alemanian eta Austrian, elkarte luteranoek eta ebanjelikoek ere ez zuten gauza handirik egin nazien aurka, salbuespen batzuekin, eta kapilau protestanteak (eta katolikoak) armadan joan ziren izugarrikeria guztiak burutu zirenean.

50.- Eliza katolikoak elizgizonek egindako milaka sexu abusu kasu estali ditu.

Azken hamarkadetan Eliza katolikoak elizgizonek egindako abusu sexualengatik, gehien bat beren zaintzapean konfiantzaz jarritako ume babesgabeen aurka, jaso dituen milaka salaketak ezer gutxi egin gabe (beharrezko lekualdaketa batzuez aparte) artxibatu eta estali ditu, poliziari, auzitegi eta autoritate zibilei ezer esan gabe eta bizitza osorako atsekabetuta geratu ziren biktimei bizkarra emanez.

Praktika horren proportzioa eta hedadura deskubritzen hasi zenean Estatu Batuetako zenbait diozesik akordio ekonomikoak sinatu zituzten biktimekin epaiketak ekiditeko.

Vatikanoak Marcial Macielen (Kristoren Legionarioen fundatzailea) hamarkada luzeetan egindako abusuak 1943tik jakin arren, pertsona askoren aurka bere semeak barne, Juan Pablo II. aita santuak bere jarduerengatik publikoki zoriondu zuen 1994an, “gazteriaren gidari eraginkorra” deituz.

Cesáreo Gabarain Azurmendi apaiza eta musikaria pederastia kasu ugaritan inplikaturata zegoela jakin ondoren Juan Pablo II. ohorezko prelatu izendatu zuen, eta antzeko kasu franko dokumentaturata daude.

Eliza erreformatuen baitan ere sexu abusu milaka kasu estali zituzten, 9.300 inguru Alemanian bakarrik esate baterako.

gibel solas gisa

Egiak, egiak, egiak. Egiak beti gogoan ate jota. Zer geratzen da erlijio jantzia biluzten denean eta egiaren uretan murgiltzen dugunean. Agian sineskeriak garbitzeko, baztertzeko eta atzean uzteko aukera sortzen dela. Agian sinesmenak izateko edo ez izateko aukera ere eskuratzen dugula.

Jesusen figura eta bere mezua baliotsuak eta esanguratsuak suerta dakizkioke edonori edonoiz, eta beharbada bere egian hartzea ondartzeko egin dezakegun aurreneko gauza izan daiteke.

bibliografia

CHARPENTIER, Étienne. *Pour lire le Nouveau Testament*. Cerf. Paris. 2004.

Pour lire l'Ancien Testament. Cerf. Paris. 1980.

CHATTERJEE, Aroup. *Mother Teresa. The final verdict*. Meteor Books. 2022.

Elizen arteko Biblia. Biblija.net Biblia interneten. Esloveniako Bibli Elkartea. 2006.

JAMES, Edwin Oliver, *History of religions*. Harper&Brothers. New York. 1957.

KÖSTENBERGER, Andreas. "A puritan Christmas". *Biblical foundations* bloga.

LARIVÉE, Serge, SÉNÉCHAL, Carole, CHÉNARD, Geneviève. "Les côtés ténébreux de Mère Teresa.". *Studies in Religion / Sciencies religieuses*. Nº 42, 2013. 319-345 orr.

LAUDER, Val. *When celebrating Christmas was against the law*. CNN Opinion. 2014/12/24.

MONTSERRAT TORRENTS, José. *La sinagoga cristiana*. Muchnik editores. Bartzelona. 1989.

NIXEY, Catherine. *The Darkening Age. The Christian Destruction of the Classical World*. Pan Macmillan. London. 2018.

PIÑERO SÁENZ, Antonio. *Guía para entender el Nuevo Testamento*. Trotta. Madril. 2016.

(Ed.) *Los libros del Nuevo Testamento*. Trotta. Madril. 2021.

El Jesús histórico. Otras aproximaciones. Trotta. Madril. 2020.

Aproximación al Jesús histórico. Trotta. Madril. 2019.

Guía para entender a Pablo de Tarso. Una interpretación del pensamiento paulino. Trotta. Madril. 2018

PIÑERO SÁENZ, Antonio, GÓMEZ SEGURA, Eugenio. *Taumaturgia en el mundo antiguo pagano, judío y cristiano*. Tritemio. Madril. 2017.

PUENTE OJEA, Gonzalo. *El mito de Cristo*. Siglo XXI. Madril. 2000.

TURCAN, Robert. *Los cultos orientales en el mundo romano*. Biblioteca Nueva. Madril. 2001.